


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

## KULTURANIZTASUNA HAUR LITERATURAN

**Gradu amaierako lana**

**Egilea: Irantzu Anda Etxebarria**

**Zuzendaria: Xabier Etxaniz Erle**

**Ikasturtea 2020-2021**

## LABURPENA

Gratu Amaierako Lan (GRAL) hau, gure gizartean gero eta pisu handiagoa duen kulturazintasunaren inguruko lan kuantitatiboa da. Haur Hezkuntzako bigarren etapan eta literatura euskarri bezala hartuta gai honen presentzia aztertzea izan da lan honen funtsa. Literaturak kulturazintasuna bezalako fenomeno batek berarekin dakarren ondorioei modu eraginkor eta apropos batean aurre egiteko tresna da eta gure Haur eta Gazte liburutegietan erraminta hori ondo erabiltzen den ikusteko aukera emango digu lan honek.

**Hitz-gakoak:** Literatura, Kulturazintasuna, Haur Hezkuntza.

Este Trabajo de Fin de Grado (TFG), es un trabajo cuantitativo sobre la multiculturalidad que cada vez tiene más peso en nuestra sociedad. El objetivo de este trabajo ha sido examinar la presencia de este tema teniendo en cuenta la segunda etapa de Educación Infantil. La literatura puede ser una buena herramienta para hacer frente de una manera eficaz y adecuada a la multiculturalidad y a las consecuencias que puede traer consigo y gracias a este trabajo vamos a observar si se utiliza bien en nuestras bibliotecas infantiles y juveniles.

**Palabras clave:** Literatura, Multiculturalidad, Educación infantil

This Final Degree Project (TFG) is a quantitative study on multiculturalism, which is becoming increasingly important in our society. The aim of this work has been to examine the presence of this issue taking into account the second stage of Early Childhood Education. Literature can be a good tool for dealing effectively and appropriately with multiculturalism and the consequences that it can bring with it, and thanks to this work we are going to see if it is used well in our children's and young people's libraries.

**Key words:** Literature, Multiculturalism, Early Childhood Education

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| SARRERA .....  | 4  |
| MARKO TEORIKOA .....                                     | 7  |
| <b>Arraza</b> .....                                      | 7  |
| <b>Arrazakeria</b> .....                                 | 8  |
| <b>Zer egin arrazakeriaren aurrean?</b> .....            | 9  |
| <b>Kultura</b> .....                                     | 11 |
| <b>Kulturaniztasuna</b> .....                            | 12 |
| <b>Euskal Autonomia Erkidegoaren errealitatea</b> .....  | 13 |
| <b>Haur literatura eta kulturaniztasuna</b> .....        | 15 |
| METODOLOGIA .....  | 18 |
| <b>Hipotesiak</b> .....                                  | 22 |
| <b>Emaitzak</b> .....                                    | 23 |
| I. corpuseko emaitzak .....                              | 23 |
| II. corpuseko emaitzak .....                             | 27 |
| ONDORIOAK .....  | 31 |
| <b>Ondorio orokorrak</b> .....                           | 33 |
| AURRERA BEGIRA .....                                     | 34 |
| BIBLIOGRAFIA .....                                       | 36 |
| Eranskinak .....   | 39 |
| <b>I. Eranskina: Fitxa</b> .....                         | 39 |
| <b>II. Eranskina: Thomas B. Fitzpatrick</b> .....        | 40 |
| <b>III Eranskina: I. corpuseko liburuen fitxak</b> ..... | 41 |
| <b>IV. Eranskina: II Corpuseko liburuen fitxa</b> .....  | 81 |

## SARRERA

Haur eta Gazte Literatura aldaketa prozesu batean murgilduta egon da sortu zenetik eta aldaketa prozesu horrek oraindik ere bere bidea jarraitzen du.

Historian zehar literatura honek landu dituen gaiak eta transmititu dituen balioak ez dira gaur egun gure gizarteko literaturan aurkitzen ditugun berdinak. Etxanizek (2008) dio, urte luzez, literaturak ideia tradizionalak, ohiturak... gizartean finkatu dituen tresna izan dela eta askotan erreala ez den gizartea erakutsi digula. Emakumea etxekoandre bezala edo gure kaleetan, eskoletan... pertsona kaukasoarren presentzia bakarra irudikatuz literaturak jokaera eredu zehatzak transmititzen ditu, hauek ezagutzea, aztertzea eta aldaketak proposatzea ezinbestekoa da.

Aldaketak proposatzea eta aurrera eramatea izan da azken urte hauetan idazle askok egin izan nahi dutena, horien eredu Adela Turin, duela hainbat hamarkada literatura feministan murgildu zena eta influentzia handia izan duena edo Miren Agur Meabe, Euskal Haur eta Gazte Literaturan lan handia egin duen idazle euskalduna dira. Idazle hauek eta haiek bezalako beste askok Astrid Lindgren 1945. urtean *Pipi Kaltzaluzeren* argitalpenarekin Haur eta Gazte Literaturara ekarri zituen balio eta ideiekin aurrera jarraitu dute, literatura zabalagoa, integratzaileagoa eta inklusiboagoa sortuz.

Oraindik ere, lan handia dago gure gizartearen errealitatea liburuetan islatzeko eta Haur eta Gazte Literaturaren irakurle guztiak irakurtzen dituzten istorioekin identifikatuta sentitzeko, liburuetan bete tokia aurkitzeko.

Lan honen bitartez literaturaren barnean kulturantzatasunaren gaia aztertuko dugu. Azken hamarkadetan kulturantzatasunak garrantzi handia izan du gure gizartean, gero eta ohikoagoa den fenomeno da eta berarekin batera datozen beste hainbat gertakari aztertzea inportantea da. Literaturak, arestian aipatu den bezala, oso erraminta baliagarria da baloreak finkatzeko orduan eta kulturantzatasunaren inguruan aurkitzen direnekin lan berdina egiten duen edo ez behatuko dugu. Horretarako, marko teoriko baten bidez gaiarekiko informazioa jasoko dugu, ondoren obra literario desberdinak aztertuz ikerketa bat egingo da ikusteko zer nolako errealitatea islatzen duen gure haur literaturak eta amaitzeko ikerketaren emaitzak izanda ondorioak aterako ditugu.

Lan hau martxan jartzeko arrazoiak bizi garen gizarteari errealitate kolpe bat ematearen motibazioarekin lotuta datoz. Alde batetik, arlo akademikotik beharrezkoa den

ikerketa da, gure hezkuntza arloan immigrazio tasa nahiko altua daukagu, 2019. urtean 33.079 jatorri atzerritarreko ikasle zeuden Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoetan matrikulatuta (El Mundo, 2019). Nahiz eta lan honek hartzen duen adin tarteko (Haur Hezkuntzako bigarren zikloa) datuak ez izan, horietako askok Haur Hezkuntzako azken ziklo honetan zeuden matrikulatuta. Alde horretatik oso garrantzitsua da lan honekin aurrera egitea, ikasle guzti horiek haien eskura dagoen literaturan haien tokia aurkitzeko, literatura horren barne sentitzeko eta gure gizarteko kide sentimendua izateko.

Beste alde batetik, arlo pertsonala daukagu, pertsonalki oso deigarria iruditzen zaidan gaia da. Inoiz erreparatutako gaia izanda, unibertsitateko hirugarren mailan izandako Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika ikasgaia gauzatutakoan arreta deitu zidan, eta ez kulturantzatasunaren gaia bakarrik, gai “deseroso” edo ez-ohizko gaiak ere, literaturaren historian zehar oso gutxitan eman direnak. Duela urte gutxi arte ezkutuan izan diren gaiak izan dira, gai tabuak bezala hartu ditu gure gizarteak eta nire uste apalean kontrakoa izan beharko litzateke, beste gai batzuei baino garrantzi handiago eman beharko genieke, pertsona moduan osatzen laguntzen gaituzten gaiak direlako.

Gainera, kontuan izan behar dugu gure gizarteak uneoro jasaten dituen aldaketak, gizarte beraren arlo guztietan islatuta egon beharko litzateke. Arlo horietako bat, haur eta gazte literatura izan behar da. Arlo hau gizartearekin bat etorri behar da, gizarteak bilakatzen den heinean literaturak bide berdina hartu eta berarekin eboluzionatu behar du. Beraz, gaur egungo literaturak gizartean gertatzen diren gaiak jorrazteko beharra du. Gai horiek ez dira aurreko hamarkadetan jorrazten ziren gai berdinak, gaur egun gai deserosoak, heriotza, sexualitatea, arrazakeria, gaixotasunak, pobrezia...ageri baitira.

Gure gizarteak izan duen aldaketarik deigarrienetarik bat kultura berrien arteko talka izan da. Urte gutxitan beste herrialde batzuetako pertsona ugari etorri dira gure artean bizitzera, eta hori oso nabarmena izan da hezkuntza arloan. Beraz, eskolek egoera hau kontuan izan behar dute eta egokitzapenak egin beharko dituzte fenomeno honen aurrean modu egokian jokatzeko.

Oso garrantzitsua da kulturantzatasuna hezkuntzaren zati izatea, kultura guztiak ezagutzea eta errespetatzea eta haiekin eguneroko bizitza egokia eta duina izatea. Horretarako literatura oso erreminta baliagarria izan daiteke, besteak beste, immigrazioarekin batera sortu den arrazismo sentimenduari aurre egiteko. Haur eta gazteei zuzendutako literaturak kulturantzatasuna aintzat hartu dezake eta gaur egun gure gizartean daukan pisua eta garrantzia islatzeko aukera aproposa da. Baina benetan islatzen da kulturantzatasuna gaur

egun dauzkagun eta haurrentzat bideratuta dauden literatura obretan? Eta islatzen bada, zein modutan egiten dute idazle eta ilustratzaileek?

Galdera hauei erantzuna emateko ikerketa bat egingo dugu. Ikerketa honen bidez kulturantzak gaur egun gure gizarteko haurrek irakurtzen dituzten ipuinetan nolako trataera duen ikusiko dugu. Ikerketa honetatik eskuratutako emaitzak eta ondorioak baliagarriak izango direlakoan egingo dugu lan hau.

## MARKO TEORIKOA

### Arraza

Gizakion kasuan, azalaren kolorea eta desberdintasun fisiologikoak kontuan hartuta egindako sailkapenari deritzo arraza. Gure egunerokotasunean ohituta gaude hitz hau entzutera eta erabiltzera, baina benetan existitzen da? Kontzeptu honek oinarri zientifikoa dauka? Badira historian zehar oinarri zientifikorik ez duen “arraza” hitza balio zuela erakusteko egin diren hainbat ikerketa. Ikerketa hauek arrazak existitzen zirela erakutsi nahi izan dute, eta haien artean desberdintasunak zeudela defendatu nahi izan dute. Kontrako ideia defenditu dutenak ere egon dira historian zehar, “arraza”ren ideia errefusatu dutenak izan dira azken horiek, gizakion arteko desberdintasunak ez daudela erakutsi nahi izan dutenak.

XVII. eta XIX. Mendeetan hainbat historialari ahalegindu ziren arraza zuria beltza baino hobea zela frogatzen bai fisikoki, bai kognitiboki, hau da, bai gorputzez eta bai buruz. Gizartea arraza askotan banatzen zela uste zen sasoi hartan. Historialari batek (Ernest Renan, 1823-1892) “behe mailako arrazei” izen-deitura eta guzti jarri zizkien: Afrikako beltzak, Australiako aborigenak eta Amerikako indiarak (*Arrazismoa beti bizirik*, 1992).

Gobineauk (in Claude levi-strauss, 1993), teoria arrazisten aita izan zenak, modu kualitatiboan ulertzen zituen giza arrazen arteko desberdintasunak, eta ez modu kuantitatiboan: bere ustez hasieran gizartea osatzen zuten jatorrizko arraza handiak, zuria, horia eta beltza, ez zituzten hainbeste ezberdintasun haien balio absolutuan, baina oso ezberdinak ziren haien gaitasun partikularretan. Berak degenerazioaren tara mestizajearen agerpenarekin lotzen zuen, arraza bakoitzaren posizioarekin baino lehenago. Tara hau gizarte osoa zigortzera bideratuta zegoen, arrazatik bereizi gabe kondenatuta, gero eta estimulatuago dagoen mestizaje batera.

Antropologiaren jatorrizko bekatua arrazaren nozio biologiko hutsaren (eremu mugatu honetan ere nozio horrek objektibotasuna lortu nahi duela suposatuz, genetika modernoak zalantzen jartzen du) eta giza ekoizpen soziologiko eta psikologikoen arteko nahasketan datza. Nahikoa izan da Gonibeauk hori egin izana, adimen-akats batetik, fede ona baztertu gabe, diskriminazio-eta ustiapen-saio guztiak nahi gabe legitimatzera daraman infernuko zirkuluan itxita egoteko (Claude Levi-Strauss, 1993).

Arestian aipatutako teoria eta argumentuak alde batera utzita, gaur egun badakigu horiek guztiz oker daudela, eta badago hori frogatzeko zientziaren ikuspuntutik fidagarriak diren ikerketa, frogak eta teoriak. Biologo genetista eta antropologo fisikoek ikuspuntu biologikotik arraza desberdinak existitzen ez dela ondorioztatu dute, horretarako mende

amaierako azken urteetatik gaur egun arteko aurkikuntzetan oinarritu dira. Beraz, ezin dira ez termino genetikoetan, ez maila psikologikoan ezta maila kognitiboan pertsonak nabarmendu (Ortobe, 2020).

## **Arrazakeria**

Arrazakeria ez da egoeraren araberako zerbait, gure historiako une berezi batzuetan bere presentzia salatu izan dena. Arrazakeria estrukturala da, hau da, beti presente egon da. Gure historia kultura eta gizarte arrazista baten historia da, eta kultura arrazista hori hainbat modutan adierazi da, haiei lotutako garaien eta kultura-aldaketan arabera (Bello Reguera, 2008).

M. Del Olmok (2006) arrazismoa benetako edo irudimeneko desberdintasunean oinarrituta pertsonak taldetan sailkatzen duen portaera soziala dela dio. Arrazismoak taldeen arteko hierarkia justifikatzea du helburu, hainbat arrazoiengatik batzuk besteak baino hobekak direla sinestaraziz.

Norbanako edo talde baten atributuen, ezaugarrien edo ondare fisiko, biologiko edo genetikoaren eta horien ezaugarri intelektual eta moralen artean lotura zuzena ezartzen denean, eta, hortik aurrera atributu horiek beste batzuen gainean duten nagusitasuna edo gutxiagotasuna baieztatzen denean arrazakeria dagoela ziurtatu daiteke (Fernandez, 2003).

Arrazakeriaren ikuspegi estrukturaletik hiru modalitate bereiz daitezke gutxienez. Lehenengoa arrazakeria metafisikoa da (Aristotelesen Politikan inplizitua), gizakien eta ez-gizakien arteko desberdintasuna justifikatzen zuena izaera metafisikoaren bidez. Gizaki bezala atenastar heldu, aske eta jabeak identifikatzen eta ez gizaki bezala esklaboak, atzerritarrak eta emakumeak, atenastarrak barne identifikatuz. Bigarrena arrazakeria biologista da, modernitate kolonialistak sortutakoa. Honek natura arraza-ezberdintasunaren eragile egiten zuen. Hirugarrena eta azkena arrazakeria kulturala da. Bizi dugun Garai post-kolonialistan gauzatzen den esperientzia multikulturaletik sortzen dena da. Honek desberdintasun sozialaren arrazoia ez du natura edo biologiaren eskura uzten, kulturen baizik (Bello Reguera, 2008).

Beraz, argi ikusi dezakegu jokabide hau ez dela bakarrik gure gizartean ematen den fenomeno bat, nahikoa zabaldua dagoela mundu osoan eta ez dela gaurko kontua.



## Zer egin arrazakeriaren aurrean?

Jokabide arrazistei aurre egiteko, lehenik eta behin, geure buruari galdetu behar diogu non duten jatorria, eta geure jokabideak, gizabanako eta talde gisa, zalantzan jarri. Arrazismoaren aurkako antidoto bakarra pentsaraztea da, hausnartzeko, kritikatzeko eta kontzientzia hartzeko dugun gaitasuna erabiltzea; eta, jakina, jarduteko dugun gaitasuna (Del Olmo, 2006).

Arazakeriaren inguruan aurkitzen dugun literatura gehienak haren kontra egiteko garrantzia azpimarratzen du (Wieviorka, 1992, Castellanos, 2000 in Velasco, 2007). Literatura horretatik arrazakeria indargabetzeko, neutralizatzeke eta aurreikusteko proposamenak sortu dira. Proposamen hauek, batzuk izaera filosofikokoak, beste batzuk legezkoak eta batzuk hezkuntza arlokoak izan direnak, ez dira modu egokian adierazi. Horrela, bere eragina ez dela guztiz eraginkorra izan uler daiteke. Gaitz sozial honek eragiten dituen hondamendiek ez dute aurre egiteko aukeretan berandutzerik onartzen (Velasco, 2007).

Velasco (2007) esaten duenez, fenomeno honen erradikalizazioa aurrera eramateko borroka-proposamenak aitortzea da abiapuntua. Arrazakeriaren indarguneak ahultzeko hiru aukera daude. Hiru aukera hauek ez dute inoiz banaka funtzionatuko, aukera bakoitzak lan egiteko modurik onena bilatu behar du beste bi aukerekin koordinatzeko eta hirurak batera eragina izateko.

Lehenengoa tolerantziaren oinarria da. Urte askotan zehar ia oinarrizko araua izan da tolerantziaren baitan bazterkeria, diskriminazioa eta arrazakerian oinarritutako xenofobia saihesteko argudioak aurkitzea. Aniztasun etniko, erlijioso, moral, etab. momentuetan, non bizikidetzak gatazkatua bihurtu daitekeen, gizarte-disziplinak ezberdinek tolerantzia eskatzen dute bizikidetzak baketsua bermatzeko baliabide gisa. Tolerantzia da beraz, salbazio-taula moduko bat, bizikidetzak baketsuaren egoera idealera ailegatzeko baliabide nagusia.

Arazakeriari aurre egiteko bigarren aukera diskriminazioaren kontrako legeak dira. 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren markoan 1965ean Nazio Batuek onartutako arraza-bereizketa mota guztiak ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa sortutako ekimena eratu zen. 1965. urtean baino lehenago arrazismoak sortutako bereizketei

aurre egiteko proposamenak egin ziren politika eta legeen arloan, baina 1965ean eman zen arraza-bereizkeriaren aurka legearen bidez borrokatzeke benetako ekimena. 1969. urtean

Arraza Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea sortu zen. Batzorde hau oso garrantzitsua izan da parte hartzen duten estatuen txostenak aztertzeke edo diskriminazioari aurre egiteko dauden organismoekin harremanak sortzeko gomendioak emateko, adibidez. Nazioarteko esparruetatik harago, diskriminazioaren aurkako lege-baliabideak garrantzia handia du barne-eremuetan. Izan ere, diskriminazioaren arloko arau-hauste batzuk nazioarteko proiektzioa dutela egia bada ere, askok, edo agian gehienek, hainbat arrazoiengatik ez dute tokiko dimentsioa gainditzen.

Hirugarren eta azkenengoa den arrazakeriari aurre egiteko aukera edo oinarria hezkuntza arloaren barruan kokatzen da. Neurri hau ez da aurreko biak bezalako, neurri honekin lortu nahi dena diskriminazioa aurreikustea eta indargabetzea da, hau guztia hezkuntza arloaren barnetik eginda, hezkuntzak arraza-bereizkeriaren eta intolerantziaren aurrean egin dezakeen aurreikuspeneko papera garrantzitsua delako. Hezkuntzaz hitz egiten dugunean ez dugu bakarrik eskolaz hitz egiten, beste erakunde sozialak izaten ditugu kontuan hezkuntza aipatzen dugunean. Familia edo eliza izan daitezke beste batzuen artean hezkuntzaz hitz egiten dugunean kontuan izaten ditugun erakunde sozialak. Baina hauek ez dituzte beti mezu positiboak helarazten, emakumearen papera gutxien dute askotan, beste sinesmenenganako intolerantzia sustatzen dute... Ematen du eskolan hau ez dela hainbestetan gertatzen, eskolak badituelako errekurtsio hobeak. Orokorrean hasieratik bertute zibikoaren ardurak eskolari egotzi zaizkio, baina tolerantzia eta diskriminazioari aurre egiteko gaietan ez da gutxi arte esku-hartzerik egin. Eskolaren eremuen, tolerantziaren eta diskriminazioari aurre egiteko irakaskuntza modu praktikoan gauzatu behar da prestakuntza honetan dauden herritarren ohitura eta jokabideetan zehaztu ahal izateko. Modu praktikoan egiten ez badira ez dira nahikoak izango. Badirudi irakurketa horrek eragin zituela zuzeneko hezkuntza-praktikan kultura ezberdinen arteko interakzioaren gaia sartzea proposatu zuren hezkuntza-ereduak, tolerantzia eta diskriminaziorik ezaren balioak erabiliz. Lehenik eta behin, 1960ko hamarkadan sortu ziren kultura anitzeko hezkuntzaren eta kultura arteko hezkuntza-ereduak dauzkagu. Lehena eragin anglosaxoiko herrialdeetan daukagu, hala nola Estatu Batuetan, Kanadan, Australian eta Erresuma Batuan, eta bigarrena Europan eman zen, hala nola, Frantzia eta Alemanian. Ondoren, 1990eko hamarkadaren amaieratik munduko leku askotan garatu den kulturarteko hezkuntzaren ereduak daukagu (Velasco, 2007).

## Kultura

Gizakia funtsean izaki kulturala da eta kultura gizakiaren eraikuntza da.

Pertsona bakoitza bizi-komunitate batean jaio da, eta komunitate horretan sozializatu da. Horretan, pertsonak pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko modu jakin batzuk barneratzen ditu. Barneratze horretatik abiatuta, bere komunitatearen mundua ulertzen du, eta hori bere mundu bihurtzen da. Aldi berean, pertsona hori kultura horren elementu osagarria izango da, eta, ezinbestean, kultura horren transmisioan, kontserbazioan eta eraldaketan lagunduko du. Kontuan izan behar da kultura dinamikoa eta aldakorra dela. Horregatik bere manifestazio batzuk mantentzen dira, beste batzuk aldatzen dira eta beste hainbat desagertzen dira. Hau guztia edozein bizi-komunitateren barnean gertatzen den interakzio komunikatiboagatik gertatzen da.

Kulturak bere existentzia eta iraunkortasuna komunikazioari zor dizkio. Horrela izanda, esan genezake pertsonen arteko elkarrekintza komunikatiboan adierazten dela kultura. Kulturaren ikuspegi hau jarrera interakzionista batetik eginda dago eta ikuskera esentzialista alde batera uzten du. Hau da, arestian azaldutako jarrera ez du kultura gizakietatik haratago dagoen zerbait dela uzten. Ez da aldaezina ezta historiatik kanpo dagoena. Kultura gizakion elkarrekintzengatik eraikitzen da, baina aldi berean ez dago inoiz behin betiko eraikita, gizakion elkarrekintzengatik eraikitze prozesuan dagoelako beti.

Kulturaren ikuspegi interakzionistarekin jarraitzen badugu, kultura hobeak edo okerragoak ez daudela onartu behar dugu. Kultura bakoitzak bere pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko moduak izango ditu eta horiekin talde batzuk diskriminazio egoeran aurkitu daitezke. Kulturaren arteko hierarkiarik ez dagoela onartzen badugu, kultura guztiek duintasuna eta errespetua merezi dutela adierazten egongo gara. Honek esan nahi du kulturak behar bezala ulertzeko modu bakarra haien adierazpenak beren kultura-irizpideen arabera interpretatzea dela.

Badira beste kultura baten aurrean gaudela jakiteko dauden 4 irizpide: hizkuntza, erlijioa, generoa eta adina. Baina ez da beti horrela izaten, hizkuntza berdina daukaten hainbat kultura ezberdin daudelako edo kultura berdinean hainbat erlijio ezberdinetakoak dauden pertsonak daudelako. Irizpide hauek defendatzeak, beraz, kulturaren bertsio estatiko eta esentzialistan erortzea esan nahiko zuen. Irizpide hauek, aldiz, kulturak anitzak direla ulertzeko erabili daitezke. Ondorioz, nahiz eta pertsona bat bizi-komunitate batean jaio, gizarte modernoak aniztasun komunitateengatik bereizten dira, honek zaildu egiten du muga kulturalak zeintzuk diren jakitea (Rodrigo, 2011).

Kultura orainaldian jarduten duen mekanismoa izanda, sentimenduaren egiturak ezartzen ditu giza talde batentzat une jakin batean. Egitura horietatik abiatuta esanahiak eta balioak bizitzen diren moduan jaso ditzakegu.

Esanahi eta balio hauek kolokan jartzen dira kulturantzatasuna agertzen denean. Egoera hau arazo soziologikoa da gaur egun. Ardura honen sustraiak kapitalen, produktu materialen eta ondasun sinbolikoen mugimenduan dauzkagu, honen ondorioz pertsonak eta informazioa maparen alde batetik bestera goaz. Horrek kulturen hibridazioa, nazionalismoen berpizkundea eta bestearekiko, hau da, ezezagunarekiko beldurra areagotu du. Indar zentrifugoak betikoak dira: gosea, nagikeria eta jazarpen politikoak. Eskulan merkea eta etekin handiena kapitalaren legeak dira, eta lehen munduko ongizate-estatu hiru garrenaren egoera txarraren kontura mantentzen da (Repoll, 2004).

## **Kulturantzatasuna**

Kulturantzatasunak kultura ezberdinen arteko harremana deskribatzen du. (Rodrigo, 2011). Antropologian kulturantzatasuna terminoak herrialde baten barruan kultura desberdinak egotea esan nahi du (Bidegain, 2015).

Kulturantzatasunak kultura-desberdintasuna dakar; muga zehatzekin definitu ezin daitekeen diferentzia da hori. Kulturantzatasunak, beraz, kulturen arteko harremana dakar, eta hori kultura ezberdinetan sozializatutako subjektuek elkarri eragiten diotenean edo kultura desberdinetako subjektu eta produktu sinboliko edo materialen arteko harremana gertatzen denean ematen da.

Desberdintasun kulturalak gizarte desberdinen zentzu komunekin bat datoz. Nahiz eta zentzu komun horiek naturaltzat hartzen diren, denboran zehar leku jakin batean eraikitako adostasunen emaitza dira. Horrela izanda, ez dira nazio edo herrialdeen mailak kultura batekoak edo besteak garen esaten digutenak, uneoro mugitzen ari den zentsua baizik. Jaiotzen garen momentutik gure eguneroko bizitzaren praktika adierazgarrien bidez zentsu horretan murgilduko gara (Repoll, 2004).

Zein da kulturantzatasunaren eta kulturartekotasunaren arteko aldea? Kultura guztiak dira bere funtsean kultur antizak. Hau da, eratzen joan dira eta eratzen doaz oraindik ere. Gaur egun beste bizi-komunitateekin dituzten harremanek haren pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko daukaten eran eragina daukate.

Elkar-truke kultural guztiek ez dituzte ezaugarri eta ondorio berdinak izango. Harreman hauetatik kultura-mestizajea ematen da. Batzuetan zaila da kultura-mestizaje honetaz ohartzea, giza-pertzepzioa oso hautakorra delako. Hautemandako pertzepzio honek errealitatearen aldez aurreko ikuskera berresten duten eguneroko bizitzako fenomenoek erreparatzera garamatza. Modu honetan, errealitateari buruz daukagun ikuspegia berretsiko dugu, batez ere, berresten duena ikusten dugulako. Laburbilduz, gure ingurura kultura anitzeko begirada bat bota behar dugu. Modu honetan gureak direla esaten diren baina benetan gure kultura bezala hartzen ez dugun beste batean errotutako manifestazio-kulturalak ikusiko ditugu nonahi.

Kultura batek ez du aurrera egiten beste kulturen kontatuarekin ez bada. Baina beste kulturekin izaten diren harremanak ezaugarri oso desberdinak izan ditzakete. Gaur egun errespetuzko erantzuna duen harremanengatik apustu egiten da.

Kultura oso desberdinetakoak diren pertsonekin harremanak izatean kulturen arteko talka sortu daiteke. Talka honetan bestearen ulermen eza eta emozio ezkorrak sortzen dira; mesfidantza, deserosotasuna, antsietatea, kezka, etab.

Arestian aipatutako talka ezkorra alde batera uzteko ulermen ahalegin bat egin behar dugu, modu honetan gaizki-ulertuak ez dira emango eta kulturarteko komunikazioa egokia izango da (Rodrigo, 2011).

## **Euskal Autonomia Erkidegoaren errealitatea**

1998tik 2018. urtera arte atzeritik etorritako 180.000 pertsona gehiago daude Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). 1998an, Euskadin, atzerriko jatorriko biztanleria, biztanleria osoaren %1,3a zen. Hamarkada bat geroago %6,6koa zen eta gaur egun %9,4a da. 20 urtetan ehun biztanleetatik hamar atzerritarrek izatetik hamarretik bat atzerritar izatera pasatu gara.

Eustaten datuen arabera 2016an EAEn izandako jaiotzen %21,4ak atzerriko nazionalitatea zuten amek izandakoak izan ziren, portzentaia hau 2001. urtean emandakoa baino askoz altuagoa da. Urte horretan jatorri atzerritarreko amen jaiotzak %3,5a izan ziren, Araban jaiotza guztien %28,8a izan ziren.

Gaur egun, EAEn bizi diren atzerriko jatorriko pertsonen ia erdiak Latinoamerikatik datoz (%47,8), jarraian Europar Batasuneko jatorrikoak ditugu (18,6) eta atzetik Magrebetik etorritakoak aurkitzen dira (%14).

Ikuspegik jatorri atzerritarreko haur eta gazteei buruz egindako azterlan baten arabera, EAEn nazionalitate eta/edo jatorri atzerritarra gutxienez guraso bat duten 76.914 (15,9%) pertsona daude, 0-24 urte bitartekoak, eta haur hauen gehiengoa bigarren belaunaldia dira. Hau da, Espainia Estatuan jaiotakoak edo 4 urte bete baino lehen etorritakoak dira.

Pertsona horien nazionalitateari dagokionez, azpimarratu behar da kategoria ugariena atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea duten pertsonena dela (%47,3), jarraian, Estatuan jaio eta Espainiako nazionalitatea duten gaztean daude (%38,6), ondoren, Estatuan jaiotakoak baina atzerriko nazionalitatea dutenak aurkitzen ditugu (%13,6), eta azkenik atzerrian jaio baina Espainiako nazionalitatea dutenak daude (%4,1).

Arabako atzerriko biztanleria gehien hazi dena izan da, eta gehiengoa hiriburuan, Gasteizen, dago kokatuta. 2018ko Instituto Nacional de Estadística, INEren datuen arabera Araban jatorri atzerritarreko 37.276 pertsona bizi dira, hau da, bere biztanleriaren %11,3a. Biztanleriaren handiagotzea migrazio mugimenduari zor zaio, bere hazkundearen %79a dela.

Eta zeintzuk dira gure autonomiako eskoletan ditugun datuak? Asko hazi da atzeritik etorritako ikasleen tasa? Immigrazioaren fenomeno eta eskola eremuan duen eragina bi alderditatik aztertu beharko lirateke, iritsi berri diren ikasleak edo berandu eskolatzen diren ikasleak (lehen belaunaldiko atzerritarrek) eta hemen jaioak eta jatorri atzerritarrek dutenak (2.0 belaunaldia), edo adin oso goiztiarrean etorritakoak (1.5 belaunaldia) bereizi beharko lirateke, bakoitzaren hezkuntza beharrak oso ezberdinak direlako.

Euskal Autonomia Erkidegoan Lehen Hezkuntza ikasten duten ikasleen %16,4a ez da sorterrikoa, hau da, atzerrian jaioa da edo jatorri atzerritarra dauka, datu hau txikiagoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean. Atzerriko jatorria dutenen ikasleak eta atzerrian jaiotakoak ezberdintzen baditugu aurreko bi hezkuntza etapetan lortutako balioak parekatzen dira. Lehen Hezkuntzan jatorri atzerritarra duten, baina hemen jaioak diren ikasleak %12a egiten dute eta ikasleen %4,7a atzerrian jaiotakoak dira. Bereizketa hau eginda, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lortutako balioak kontrakoa esaten dute, gehiago dira atzerrian jaiotako ikasleak, hemen jaiotakoak baina atzerriko jatorri dutenak baino.

Eskola sareak aztertzen baditugu, bi hezkuntza etapen artean desberdintasunak aurkitzen ditugu. Lehen Hezkuntzan atzerrian jaiotakoak eta atzerriko jatorria duten ikasleen gehiengoa eskola publikoetan daude diferentzia handiarekin. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diferentzia hori ez da hain nabarmena, jatorri atzerritarra duten ikasle gehiago daude hezkuntza kontzertatuan.

2017-2018 ikasturtean 129.364 ikasle zeuden Lehen Hezkuntzan eskolatutak E.A.E.n, hauetatik %80,9 a sorterrikoak ziren (104.683 ikasle); %11,7a Estatuan jaiotakoak baina jatorri

atzerritarra zutenak ziren (15.097 ikasle); eta %4,7a atzerrian jaiotako ikasleak ziren (6.130 ikasle).

Arestian emandako datuak hazten jarraitzen dute, eta horren erakusle Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletan egiten diren matrikulazioak dira. 2018ko matrikulazioa kanpainan 16.766 eskaera jaso ziren 2 urteko geletarako, horietatik 215 atzerrian jaio ziren umeenak ziren, 1.223 haurrek atzerriko nazionalitatea zeukaten eta %25ak gutxienez guraso atzerritar bat zeukaten. Honek esan nahi du 3 haurretatik 2k baino gehiago Espainiako nazionalitatea zeukatela nahiz eta gutxienez guraso bat atzerritarra izan (Eusko Jaurlaritza, 2018).

### **Haur literatura eta kulturantzatasuna**

Aspalditik ia inork ez du zalantzan jartzen literatura ulertzeko eta jasotzeko gaitasunak kontuan hartzen dituen haur eta gazteei berariaz zuzendutako literatura bat dagoela. Baina Haur eta Gazte literaturaren existentzia oraintsukoa da: argialetxeak haur eta gazteei zuzendutako liburuak plazaratzen hasi zirenean, duela 40 urte inguru gertatu zena. Hala ere, haur liburuek haien berezko historia daukate, hau da, aipatutako azterketa egin aurretik haurrentzako liburuak egon ziren.

Antzinako kulturek ez zieten haurrei inoiz espazio propioirik eskaini, lehenbailehen helduak izatea nahi baitzuten. Horregatik inprimategia asmatu aurretik haurrek literaturarekin zuten harremana eta helduek literaturarekin zutena ez ziren oso desberdinak. Pentsaezina da, beraz, nagusienak ez ziren irakurketak izatea haientzat; aitzitik, nahikoa ziruditen publiko orokorrarentzat idatzitako liburuak, batez ere elementu fantastikoak (alegiak edo ipuinak) lehenesten zituztenek, bai eta ahozko tradizioaren konposizioek ere, beren aberastasun eta aniztasun guztiarekin, batez ere jolas jakin batzuk laguntzen zituzten abestiak.

Inprenta sortu zenetik (XV. mendean) haurrentzako liburuen egile nagusiak agertu arte (XIX. mendearen amaieran) Haur eta Gazte Literaturaren zati diren haurrentzako liburu batzuk idatzi eta argitaratu ziren.

Inprentak irakurketa aukera berriak sortu zituen haurren munduan, liburuen hedapena zabaltzeko eta modu horretan liburuak eskura izatea errazagoa zelako.

1697. urtean Perraultek ipuin batzuk argitaratu zituen: *Erpurutxo*, *Katu botaduna*, *Loti ederra*, *Errauskine*, *Bizar urdin*, *Astoaren azala*, *Maitagarriak*, *Griseldis*, *Desira barregarriak* eta *Malkarreko Riquete*. Ipuin hauek ipuinek eta fabulek ordura arte ez zuten onespenez soziala



izatea lortu zuten. Momentu honetatik aurrera haurrentzako ipuinak ez dira berriro apeta bezala ikusten eta literatur kultuaren barruan lekua izango dute.

Mende horretan haurtzaroaren kontzeptua aldatu egin zen. Europa osoan burgesiaren sorrerak haurra familiaren funtsezko elementu bilakatzea eragin zuen. Haurtzaroa bizitzako etapa garrantzitsua bihurtu zen, haurrek berariazko hezkuntza behar zuten haurtzaroan eta horregatik haurrentzako ipuinak idazten eta argitaratzen hasi ziren erreminta didaktikoa bezala.

Momentu honetan hezitzaile ilustratuak liburuen argitalpenak erraztu zituzten. Liburu hauen xedea haurrak irakastea zen, baina atseginez irakatsi behar zela zioten, beraz, kasu batzuetan liburu horietan ipuinak edo fabulak agertzen ziren. Garai honetan irakasteko ez ziren liburuez a parte hurren gozamenerako eginda zeuden liburuak argitaratzen ziren. Horren eredu bi obra ditugu, *Robinson Crusoe*, Daniel Deforek idatzia eta *Guilliverren bidaiak* Jonathan Swiffek idatzita.

Nahiz eta XVIII. mendeko haur literaturak aberaste prozesu bat bizi, ez zuen lotura hezitzaile eta moralizatzaileetatik askatzea lortu, kontrakoa, indartsuago bilakatu ziren lotura horiek. Momentuko hezitzaile askok, idazleak zirela pentsatuz, haurrentzako liburu didaktiko eta haien heziketarako erabilgarriak sortu zituzten.

XIX. mendean haurrak irakurle askeak bezala ulertzen hasten dira, hau eskolaren hedatze prozesuaren ondorioz gertatu zen. Mendearen lehenengo urtetan Erromantizismoa heldu zen eta garai honetan tradizio popularra berreskuratzeko interesa piztu zen. Hans Christian Andersen izan zen mende honetako Haur eta Gazte Literaturaren irudi nagusienetakoa, gizon honek lehenengo bultzada eman zion haur literaturari. Apur bat geroago, mende erdian, Errealismoarekin, haurrentzako literaturak bere bidea jarraitu zuen, bide honetan hiru mugarri garrantzitsu daude:

- Benfeyk sortutako *Panchatantrata* edizio alemaniarra. Edizio honek bide berria zabaldu zuen Haur eta Gazte Literaturarentzat: ekialdeko kulturetatik zetorren fabularekiko interesa.
- *Alizia herrialde miresgarrian* ipuinaren plazaratzea. Lewis Carrolek idatzi zuen ipuinak goi-mailako klaseek zeuzkaten konbentzionalismoak kolokan jartzen zituen, eta hau haurra zen protagonista batek egiten zuen.
- Mark Twain estatubatuarren Haur Literatura, *Tom Sawyer* edo *Huckleberry Finnen abenturak* obrarekin. Bi hauetan kritika soziala egiten zuen ironia erabiliz.

Pertsonaia eta gai berriak urte horietako literaturarako espero zirenak izan ziren. Pertsonaien kasuan, burgesia txikiaren eta erdi mailako klasearen ereduak agertzen hasi ziren, hauek haien arazoak, ametsak eta ilusioak azaleratzen zituzten. Gaien kasuan



didaktismoa alde batera utzi eta errealitateko gaiak aztertzen hasi ziren. Aipatu behar da, mende honetan zientziaren inguruko pasioa sortu zela, eta honekin batera gai hau eta historia ardatz hartuta hainbat lan literario sortu zirela, Julio Vernereren *Munduari bira 80 egunetan* adibidez.

Haur eta Gazte Literatura modernoaren sorrera 1945ean eman zen *Pippi Kaltzaluzeren* agerpenarekin, Astrid Lindgren idazlearen obra. Ia mundu osoko hurrek besoak zabalik jaso zuten Haur eta Gazte Literaturan berrikuntza mugimendu baten hasiera suposatu zuen obra hau. Pippik eragin zuena Gianni Rodariren ondorengo obran islatuta ikusi zen, didaktismoa behingoz gainditzea. Irudimen eta errealitatearen fusioa eta hizkuntzarekin jolastearen erabakia, haurren mundua adierazteko modu bikaina zen aldetik, Haur eta Gazte Literaturaren bide berriari hasiera zoriontsua eman zioten.

XX. mendearen erdialdetik aurrera, Haur eta Gazte Literatura ezberdina zabalduz joan zen mundu osoan zehar (Mediavilla, Brotons, Escandell, Rovira, 2016 in Cerrillo, 2016).

Haur eta Gazte literatura historian zehar aldatzen joan den bezala honek landu dituen gaiak ere trantsizio etengabea bizi izan dute. Arestian aipatu den bezala, hasieran haurrentzako ipuinak helburu didaktikoa zuten, baina denbora aurrera egin ahala haurren gozamenerako idazten hasi ziren. Momentu horretatik asko izan dira liburu eta ipuin hauetan agertu diren gaiak, baina azkenengo urte hauetan gai sozial eta psikologikoek indarra hartu dute Colomerren (2010) esanetan, gai horietako bat kulturantzatasuna da. Gai honen agerpena eta indarrean egoteko arrazoi nagusia posmodernitatearen ezaugarria den giza taldeen arteko kontaktuaren handipena izan da. Hau ez da arraroa literatura inguratzen gaituen mundua ulertzeko erreminta gisa ulertzen badugu, eta gure munduan gertatzen dena islatu egiten du. Kulturarekin harremana daukaten gaien agerpena ez dira guztiz berriak literaturan, baina aldatu dena gaietara ikuspuntua izan da eta ohikoagoa bilakatzen da kulturantzatasuna. Kulturantzatasuna, beste gai asko bezala, ezberdin helarazten da hartzailea heldua edo haurra baldin bada. Haur eta Gazte Literaturan gai hau agertzen denean idazleak argi dauka irakurlea eraikuntza prozesu batean murgilduta dagoen pertsona bat dela, horregatik indar handia jartzen du bidali nahi duen mezua zuzenketa etikoan. Modu honetan, Haur eta Gazte Literaturari munduko errealitatea azaltzeaz gain, errealitatea hobea gizarteak desiratzen duena, gazteek martxan jartzeaz arduratuko diren utopia proposatzea eskatzen zaio (Chovancova 2015).

## METODOLOGIA

Lan hau aurrera eramateko ikerketa kuantitatibo bat egin dugu, hau da, hemendik eskuratutako emaitzak zenbatu eta neurtu egin dira gure ondorioak atera ahal izateko.

Lanarekin hasi baino lehen eta arestian aipatutako helburuak oinarri hartuta hainbat lan literario aztertu ditugu. Azterketa egiteko fitxa bat sortu dugu (ikus eranskina I). Fitxa horretan hainbat item agertzen dira, lanarekin hasi baino lehen buruan nituen hipotesiei erantzuten diotenak. Hipotesiak 5 izango dira eta hauei erantzuteko “Bai”, “Ez” edo “Ez dakigu” aukerak izango ditugu.

Aztertu ditugun lan literarioak bi corpusetan sailkatu ditugu, alde batetik Gasteizko hiru Udal liburutegitan hartutako 40 liburu izan dira, eta bestetik, liburutegi berdinetatik espezifikoki aukeratutako beste 10.

Lehenengo corpusean 40 liburuak agertzen dira, liburu hauek Ibaiondo Udal liburutegitik (17 liburu), Hegoalde Udal liburutegitik (26 liburu) eta Salburua Udal liburutegitik (7 liburu) hartutakoak dira. Liburuak aukeratzeko orduan Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako zuzenduak izatea eta liburutegi hauetan 3-5 urteko haurrek gehien aukeratu dituzten liburuak hautatzea izan dira irizpideak.

Bigarren corpusean 10 liburu aurkitzen ditugu, arestian aipatutako hiru Udal liburutegi berdinetatik hartutakoak dira eta kulturantzitasuna modu batean edo bestean espezifikoki tratatzen duten liburuak dira.

Hauek dira lehenengo corpusean agertzen diren liburuak:

- Alberdi, U. (2017). *Nork agintzen du eskolan?*. Donostia: Elkar
- Amuriza, M. (2016). *Porrotx hizkuntzaren arnasa*. Donostia: Elkar
- Añorga, P. (2013). *Handia naiz*. Donostia: Elkar
- Arrieta, Y. (2014). *Maddalenen usaina*. Amorebieta: Ibaizabal.
- Blake, Q. (2016). *Magnolia jauna*. Pontevedra: Kalandraka
- Blanch, X. (1999). *Zatoz, txantxangorria, zatoz!*. Donostia: Ttartalo
- Bonilla, R. (2019). *Aspertuta, Minimoni?*. Alzira: Algar

- Brenman, I. (2008). *Printzesek ere puzker egiten dute*. Alzira: Algar
- Brenman, I. (2018). *Nork itzali ditu nire kandelak?*. Amorebieta: Ibaizabal
- Brown, P. (2009). *Lorategi bizia*. Donostia: Ttarttalo
- Bruno, P. (2010). *Z Familia*. Pontevedra: Kalandraka
- Condon, J. (2020). *Badatoz piratak!*. Amorebieta: Ibaizabal
- Copons, J. (2018). *Kakari buruz dakidan guztia*. Tafalla: Txalaparta.
- Del Mazo, M. (2015). *Azazkalo*. Tafalla: Txalaparta
- Dematons, C. (2000). *Goazen!*. Donostia: Ttarttalo
- Girbés, J.C. (2011). *Denok denda barrura!*. Irun: Alberdania
- Girbés, J.C. (2011). *Mugimendu handiko eguna*. Irun: Alberdania
- Girbés, J.C. (2011). *Urtebetetze jaia*. Irun: Alberdania
- Goñi, L. (2016). *Zerua gris dago*. Iruña: Pamiela
- Gurrutxaga, M. (2010). *Alex, nire laguna da*. Iruña: Pamiela
- Kerr, J. (2019). *MOG eta umetxoak*. Madril: Harper Kids
- Kintana, X. (2002). *Zergatik... joan behar dugu eskolara?*. Bilbo: Librifer
- Koppens, J. (2016). *Mila bi etxetan bizi da*. Donostia: Ttarttalo
- Könnecke, O. (2008). *Annton eta hostoak*. Irun: Alberdania
- Krahn, F. (2006). *Inork ikusi ahal ditu nire guraizeak?*. Pontevedra: Kalandraka
- Mayer, M. (1968). *Amets Gaizto nire armairuan*. Pontevedra: Kalandraka
- Mc Kee, D. (2019). *Orain ez, Beñat*. Pontevedra: Kalandraka
- Meroto, T. (2017). *Sorgina kirris karras*. Tafalla: Txalaparta
- Monreal, V. (2001). *Gau beldurgarria*. Bilbo: Aizkorri
- Núñez, M. (2020). *Begiradazalea*. Pontevedra: Kalandraka
- Ormazabal, J. (2008). *Zirkua amets*. Iruña: Pamiela
- Pita, C. (2010). *Amonatxoak*. Tafalla: Txalaparta
- Randerath, J. (2006). *Maialen eta denboraren misterioa*. Irun: Alberdania
- Rowland, L. (2019). *Ez! Esan zuen zalduna*. Amorebieta: Ibaizabal
- Schimmel, L. (2002). *Baratzeko misterioa*. Pontevedra: Kalandraka
- Schubert, I. (1989). *Pirata zaharra*. Donostia: Ttarttalo
- Slegers, L. (2003). *Txomin eskolan*. Amorebieta: Ibaizabal
- Starkoff, V. (2010). *Hodeiekin dantzan*. Pontevedra: Kalandraka
- Van der Heide, I. (2005). *Klarion gorria*. Donostia: Ttarttalo

Zubeldia, I. (2012). *Ipurtargien festa*. Berriozar: denonartean

Bigarren corpuseko liburuak:

Azpiazu, A. (2017). *Arraroa*. Pontevedra: Kalandraka

Browne, A. (2006). *Kezkamuxelak*. Pontevedra: Kalandraka

Egaña, A. (2011). *Dragoia*. Donostia: Erein

Fox, M. (2018). *Hamar hatz ttipi eta hamar behatz ttipi*. Pontevedra: Kalandraka

Jeffers, O. (2017). *Hona gu hemen*. Tafalla: Txalaparta

Minhots, I. (2012). *Inuiten mila zuriak*. Tafalla: Txalaparta

Murua, M. (2007). *Pirritx eta Porrotx Tiderrekin tea hartzen*. Donostia:Elkar

Muñoz, V. (2006). *Munduko haurrak*. Donostia: Erein

Pieper, C. (1998). *Munduan barrena noraezean, hartza eta Kattalin*. Pontevedra: Kalandraka

Weulersse, O. (2005). *Nasrudin*. Amorebieta: Ibaizabal

Lan osoan zehar Gizakien azalaren koloreaz hitz egiteko Thomas B. Fitzpatrick Estatu Batuetako dermatologoak egindako sailkapena (Sanchez-Saldaña, Lanchipa, Pancorbo, Regis eta Sanchez, 2002) hartuko dugu kontuan (ikusi eranskina II). Beraz, azal zuria esatean Fototipo I,II eta III duten pertsonen egingo diegu erreferentzia eta aldiz, Fototipo IV, V eta VI dutenek azal ilunekoak izango dira. Fototipo bakoitzak bere

zehaztasunak izango ditu, horiek hobeto ulertzeko aztertutako zenbait obraren adibideak jarriko ditugu:

FOTOTIPO I



FOTOTIPO II



FOTOTIPO III



FOTOTIPO IV



FOTOTIPO V



FOTOTIPO VI



## Hipotesiak

Hauek izan ziren obrak aztertzen hasi baino lehen aurreikusi genituen hipotesiak.

- *Beste kultura batzuetako pertsonaiak oso gutxi agertuko dira. (kaukasoarrak ez diren kulturatakoak edo II. fototipokoak ez direnak).*

Gure lan literario gehienetan gu bezalako pertsonaiak aurkitzera ohituta gaude, hau da, azal argia, ilehoriak edo ile beltza dituztenak, gure gizartean nagusitzen den estereotipoa. Liburuaren gaia kulturantzatasuna ez bada edo beste kultura batean gertatzen den istorioa kontatzen ez bada oso arraroa izaten da beste kulturako pertsonaiak agertzea.

- *Gehien agertuko diren beste arrazako pertsonaiak VI fototipokoak izango dira.*

Beste kulturako pertsonaiak agertzen badira, azal oso iluna dituztenak izaten dira. Hau gerta daiteke gure azalaren kontrakoa direlako eta desberdintzeko mutur batetik bestera pasatzea errazena delako.

- *Beste arrazako pertsonaiak pobreak izango dira.*

Hipotesi hau gure gizartean dauzkagun aurreiritziekin bat dator. Normalean immigrazioa eta gure gizartean beste kulturetako pertsonak aurkitzea pobreziarekin harremantzen dugu. Marko teorikoan azaldu den moduan hipotesi hori arrazakeriaren sentimenduak eraginda dator eta ez da errealia.

- *Beste arrazako pertsonaiak ez dira protagonistak izango, bigarren mailakoak baizik.*

Aztertzen ari garen lana beste kulturen inguruan espezifikoki hitz egiten ez badu horretan agertuko diren beste kulturetako pertsonaiek ez dute paper garrantzitsu edo lehen mailako papera izango.

- *Beste kulturetako pertsonaiak gaiztoa edo maltzuraren papera izango dute ipuinean.*

Pobreziaren hipotesiarekin gertatzen den bezala, beste kulturetako pertsonen presentzia ezaugarri negatiboekin lotzen ditugu, indarkeria, gatazkak, lapurretak... Eta guzti horiek lan literarioetan islatuko direlakoan nago.

- *Liburu espezifikoetan, gai nagusia beste kulturak erakustea izango da, beste errealitate horiek islatzea.*


Liburu hauek kulturantzatasuna gai nagusitzat izanda beste kulturak aurkeztu, erakutsi, deskribatu... egingo dutela pentsatu daiteke.

## **Emaitzak**

### I. corpuseko emaitzak

